

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Funtsezko elkarteak atal esanguratsua dela kontuan hartuz, proiektuari hasiera emateko Sozietate Anonimo bat osatuko dugu. Proiektuaren jabeak taldeko 4 partaideak izango gara, diru sarreren arduradun izanik lehen oinarri bezala. Partaide bakoitzaren funtzioari dagokionez, honako hauek izango dira: Anek Xabierrekin batera aplikazioaren diseinuaren oinarriaz eta helburuak finkatzeaz arduratuko dira, eta Ainara eta Lide aldiz, salmentarako abilezia dutenez Marketing kanpaina egokiak burutuko dituzte bezeroei era ahalik eta eraginkorrean bideratu ahal izateko. Gainera, hauek ere kontuan edukiz haien diseinu bereziak eta pertsonalizatuak sortzeko gaitasuna, enpresak dituen informatikoein batera lan egingo dute aplikazio garatzerako orduan. Egitasmoa garatu ahala hartzekodunak izateko asmoa dugu.

Horretarako, hartzekodun erreal bat izango da eta ez pertsonala. Izan ere, proiektu modelo honetarako eraginkorragoa da aukera hori.

Baina akziodunak sartu aurretik enpresaren bilakaera aztertuko dugu epe ertain batean, eta bilakaera ikusiz gero interesa piztu zaien akziodunekin harremanetan jartzen saiatuko gara. Hornitzaileei dagokienez, guztiaren oinarria aplikazioa funtzionatzeko behar berdina partekatzen duten gazteak izango dira, hau da, pisu baten beharrean dauden gazteak, beraz haien partaidetzarik gabe ezingo da posible aplikazioa ongi joatea. Hortaz, ezinbestekoa izango da gazteei marketin kanpaina egokiak eginez bideratzea, hori ezinbestekoa izango baita aplikazioaren funtzionamendua bermatzeko eta hobetzeko.

Partnershipari dagokionez, proiektua gauzatu dugun lau pertsonen artean partekatuko dugu guztia hasieran, hau da, galeretan nahiz irabazietan partekatuko dugu guztia. Eta hala izango da ere enpresaren funtzioak nahiz betebeharrak banatzerako orduan, dena denen artean banatua eta orekatua geldituko da, aukera interesgarriena eta egokiena iruditzen zaigulako negozio berri bat hasteko.

Baina, aplikazioaren funtzionamendua bermatzeko networking oso sendo bat izan beharko dugu. Izan ere, aplikazio hau ezin da aurrera eraman ezta bideratu lehenagotik zenbait informazio bildu gabe. Beraz, lehendabizi, aukera ezberdinak baloratuko dira eta gero, aukera desberdinak ikusiz gero gure beharretara hobekien egokitzen dena aukeratuko da.

Guk beharko dugun oinarrizkoena gazteei buruzko informazioa izango da, eta ondorioz ezinbestekoa izango enpresatik kanpoko erakundeen kolaborazioa estatistika nahiz datuen analisia egiteko. Beraz, lehendabizi erakundeak izango dira gure oinarria baina gauzak gaizki badijoaz beste informazio iturrietara jo beharko dugu egoera hobetzeko asmoz. Beraz, erakundeen partaidetza gurekin bermatzea ezinbestekoa eta funtsezkoa izan behar da.

